

PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

11-9-21 O.ALEA

UDAL BERRIA ABIAN

4. ORR. ▶▶

BATZORDE
INFORMATZAILEEN
DEIALDIA

3. ORR. ▶▶

HIRIGINTZA
PROIEKTUAK
AZTERGAI

8. ORR. ▶▶

GERRA ZIBILAREN
ONDORIOAK
HERRIAN

10. ORR. ▶▶

EDITORIALA

Esku artean duzun aldizkari hau zizurkildarren eta Udalaren topagune berria izateko asmoz sortu da. Plaza elkargunea da, eztabaidagunea, herrikideok geure istorio, asmo eta iritziak trukatzeko ditugun lekua. Aldizkari honek plazara gerturatzen den herritar bat gehiago izan nahi du. Udala egiten ari denaren berri emango dizue, zizurkildarrak jakinaren gainean egon zaitezten Udalaren kudeaketaz zein etorkizuneko proiektuez eta ondorioz, zuen iritzia eraikitzeke aukera izan dezazuen.

2 Ongi etorri Plaza Berrira

Gardentasunaren bidetik

Bilduk hauteskunde kanpaina erabili zuen lelo nagusietako bat udalaren gardentasuna izan zen. Udala herritarrei irekitzeko garaia zela aldarrikatu zuen koalizioak behin eta berriz. Bada, emandako hitza betetzeko unea iritsi da. Plaza Berriren xedea ez da propaganda egitea. Ez doa errekonozimendu bila. Udal kudeaketari buruzko informazio zehatza eskainiko du, herritarrek bertan parte hartzeko prest egon zaitezten.

Udalaren jardueraren ardatz izango badu ere, Plaza Berrik herri aldizkariaren izaera du. Hots, herriko talde eta eragileek eskura izango duzue hiru hilez behin argitaratuko den hedabide berria.

Ongi etorri a Plaza Berri

La revista que por primera vez tienen entre manos se llama Plaza Berri y llega con la vocación de ser el punto de encuentro entre las y los zizurkildarras. Trimestralmente, recibirán información acerca de la gestión y los proyectos que está llevando a cabo el Ayuntamiento.

0 ale hau alkate eta alkateorde berriak egindako elkarrizketarekin irekiko dugu. Informazio Batzordeen sorrerarako bilkura deialdien berri ere badakar. Hirigintza kontuei dagokionez, Area 33ko afera edota Joxe Arregi Plazan egitera doazen urbanizazio lanak

Bildu abogó por la transparencia en todas las instituciones durante la campaña electoral. Es la hora de cumplir lo prometido. La propaganda no es el fin de esta revista, sino ofrecer la información necesaria para que los y las zizurkildarras opinen y participen activamente en

hartuko ditugu mintzagai. Azkenik, kultura arloan Frankistek duela 75 urte fusilatu zituzten zizurkildarren memoria berreskuratzeko ahaleginaren berri jasoko duzue Hernandorena Kultur Taldearen eskutik.

Ongi etorri eta egonaldi on zizurkildarren Plaza Berrian.

el día a día del Ayuntamiento. Sin embargo, los contenidos de Plaza Berri no se limitarán a trabajo del Gobierno Municipal. Las asociaciones y las entidades de Zizurkil tendrán su merecido espacio en esta publicación trimestral.

Bienvenidos y bienvenidas.

Batzordeak sortzen, Zizurkil birsortzen

Herri programa osatzeko garaian, hauteskunde kanpaina nola kargua hartu ostean, Zizurkilgo Bilduk behin eta berriz adierazi du alorrez alor sortutako batzordeak irekiak eta parte hartzaileak izango direla. Mezu hori behin eta berriz errepikatu izanak badu arrazoi bat: Udal talde honen borondatea, herria herritar guztien artean eraikitzea da, eta horretarako ezinbesteko tresna dira batzordeak, azken horiek izango baitira erabakiguneak. Beraz, interesgarri zaizuen batzordea aukeratu eta taulan zehazten den hitzordua azaldu besterik ez duzue egin behar. Zizurkil elkarlanean eraiki dezagun.

Hamaika batzorde

Ekainaren 25eko osoko bilkuran onartu zen 10 batzorde informatzaileen sorrera.

B a i n a zehaztutako batzorde horietako batean, eraginkortasuna helburu hartuta, bi lan talde ezberdin osatzea erabaki da. Era honetan, kirola eta gaztedia bi batzorde ezberdin izango dira. Era berean, Nekazaritza, Lurralde antolaketa eta Ingurumen sostengarria izeneko batzordeak gain, baseritarren batzordea ere martxan jarri da. Azkenik, pertsonala-ren batzordea ez da parte hartzeri ireki, honek ukitzen dituen gaiak Udal langileria baitagozkio soilik.

Las comisiones informativas en marcha

Las fechas de celebración de las primeras comisiones informativas están establecidas (ver tabla) y el Ayuntamiento de Zizurkil quiere animar a toda la ciudadanía a que participe en ellas. Tal y como anunció Bildu durante la campaña electoral, las comisiones serán

abiertas y participativas. De esa manera se pretende responder a uno de los máximos objetivos de la Corporación municipal, construir Zizurkil entre los vecinos y las vecinas. Por ello, les animamos a participar en la comisión que más les interese.



batzordea	eguna	ordua	lekua
Hezkuntza, Kultura eta Euskara Arduraduna: Alaitz Ormazabal	Irailak 28	19:30	Iriarte Etxea
Zerga politika eta Sozioekonomia Arduraduna: Nerea Lizarraga	Irailak 29	19:30	Atxulondo Kultur Etxea
Kirola Arduraduna: Aritz Esnaola	Urriak 3	19:00	Atxulondo Kultur Etxea
Internazionalismoa eta giza eskubideak Arduraduna: Eva Usandizaga	Urriak 3	20:00	Atxulondo Kultur Etxea
Parekidetasuna: Arduraduna: Eva Usandizaga	Urriak 4	19:00	Atxulondo Kultur Etxea
Hirigintza Arduraduna: Jose Mari Luengo	Urriak 5	19:00	Atxulondo Kultur Etxea
Gazteria Arduraduna: Aritz Esnaola	Urriak 6	19:00	Atxulondo Kultur Etxea
Nekazaritza, Lurralde antolaketa eta Ingurumen sostengarria Arduraduna: Jose Manuel Izagirre	Urriak 10	19:00	Atxulondo Kultur Etxea
Baseritarrak Arduraduna: Jose Manuel Izagirre	Urriak 10	21:30	Udaletxea
Ongizatea Arduraduna: Nerea Lizarraga	Urriak 11	19:00	Atxulondo Kultur Etxea
Herritarren partehartzea eta komunikazioa Arduraduna: Leire Zubeldia	Urriak 18	19:00	Atxulondo Kultur Etxea

ELKARRIZKETA

Joxe Mari Luengo (1962, Azpeitia) eta Nerea Lizarraga (1975, Zizurkil) dira Zizurkilgo alkate eta alkateorde berriak. Udalaren egoeraz eta buruan ditzuten proiektuez hitz egiteko elkartu gara Plaza Berrin.

4

Nolakoak izan dira zuentzat lehenengo hilabete hauek?

Nerea Lizarraga: Niretzat kaotiko xamarra izan dira. Udala ez nuen ezagutzen eta dena berria da niretzat. Udalaren funtzionamendua ondo ezagutu arte egokitze prozesu bat da, baina pixkanaka baagoaz.

Joxe Mari Luengo: Niretzat ere mundu berria da hau. Hilabete hauek gainera, arraroak izan dira, udarako oporrak ere tartean egokitu zaizkigu eta.

Zein egoeratan aurkitu duzue Udala?

N. L.: Egoera ekonomikoari erreparatzen badiogu, Udala oso egoera txarrean dago.

Zorpetze maila izugarria dauka, eta horri ezin zaio buelta eman ez urte batean eta ezta bitan ere. Gogorra da esatea, baina dagoen zorpetzearen ondorioak hurrengo legealdietara ere iritsiko dira. Ikusi egin beharko da egoerari irtenbidea nola eman dakioken. Aukera bat diru sarrerak handitzea da, baina udaletxea ez

da enpresa bat, ez du ezer saltzen, eta oso zaila da irabaziak sortzea. Beste aukera gastuak murriztea da, eta horri heldu beharko diogu, ez baitaigu beste erremediorik geratzen.

JM.L.: Udalaren egoera ekonomikoaren gutxi gorabeherako argazki bat badugu, baina egoera erreala jakiteko auditoria bat egiten ari gara. Inpartziala den kanpoko profesional batek egindako erradiografia nahi dugu, behin hori edukita, handik edo hemendik egoera zuzentzen hasteko. Azaroa hasierarako emaitzak eskuetan izatea espero dugu eta herritarrei jakinaraziko dizkiegu.

Nola eragingo du honek datozen urteetako aurrekontuetan?

N.L.: Argi esan behar dugu: ez da diru asko izango gauzak egiteko. Zailtasunak izango dira herrian inbertsioak egiteko. Hala ere, ezer gutxiarekin gauza garrantzitsuak egiten saiatu beharko dugu.

JM.L.: Beste instituzioek

“Gogorra da esatea, baina dagoen zorpetzearen ondorioak hurrengo legealdietara ere iritsiko dira”

5

eskaintzen ditzuten diru-laguntzekin bideratu behar dugu udal aurrekontua. Azken finean, urteko aurrekontua oinarritzkoak diren gauzetan joatean da. Hori ezin dituzu ukitu ere egin. Oinarritzko gastuetatik irten den guztia, obra handiak, kultur ekimen berriak... diru-laguntzen bidez bideratzen asmatu beharko dugu.

Alkatea lanaldi osoz eta alkateordea lanaldi erdiz ari zarete jardunean. Aurreko legealdietan baino liberazio erdi bat gehiago ordaindu behar du Udalak. Zergatia azaltzerik bai?

N.L.: Hasiera batean nire lanaldi erdiarena lehenengo bi urtetarako planteatu dugu, erritmoa hartu arte. Urte asko eman ditugu udalletxetik kanpo, eta gauzak ez dira guri gustatzen zaizkigun

bezala egin. Udala herrira gerturatu nahi dugu, beste kudeaketa bat egin arlo askotan. Guzti horrek esfortzua eta lana eskatzen du, eta ondorioz, lanaldi erdia gehitzearen aukera hobetsi dugu.

JM.L.: Bestalde, lehen esan dugun bezala bai Nerea eta bai ni berriak gara lan honetan, eta gauzak askoz ere xarragoak izaten dira biren artean eginez gero. Kudeaketa hobea egiten dugu biok elkarlanean arituta. Gainera, argitu behar da, alkateordearen liberazio erdia gehituta ere ez dugula aurreko udal taldeak soldatetan egiten zuen gastua gaintzen. Zinegotzien soldata eta dietetan, lehen hilean zazpi mila euro pasatxo gastatzen ziren eta orain kopuru hori 2 mila pasatxora jaitsi dugu, oposizioaren kritika artean.

Udalaren egoeraz hitz egin dugu, baina Zizurkil herriaren egoera, zein da? Zein diagnostiko egiten duzue?

N.L.: Elbarrenari dagokionez, bizitza falta zaiola iruditzen zait. Ez dakit Udalaren errua den edo ez, baina bizitza falta zaio. Villabona aldamenean daukagu, eta horrek eragiten dio Zizurkili, bertan dauden azpiegiturek falta zaizkigulako edota beraienak erakargarriagoak direlako. Esaten dudanaren adibidea gazteak dira. Lehen Hezkuntza amaitu eta Bigarren Hezkuntza egitera Villabonara joaten dira, eta batzuetan herriarekiko lotura galtzen dute. Horren ondorioetako bat da Zizurkilen antolatzen diren ekimenetan parte hartze txikia izatea. Finean, gorpil zoro bat da dena, baina arazoaren jatorria hor dago.

JM. L.: Gazteak ondoko herritarra alde egitearen beste arrazoia etxebizitza falta da. Urte luzetan ez da etxebizitzarik egin. Orain Joxe Arregi plazako etxebizitza tasatuak egiten hasiko dira, eta badirudi alor honetan ere gauzak mugitzen ari direla, baina hutsune handia dago. Azpiegiturei erreparatuta, kultur etxea egoera kaxkarran dago, kirol ekipamendu funtzionalik ez daukagu... Aspektu guztietan ez da ezer egin, eta horrek denak ekartzen du lehen esan duguna.

Proiektu asko aipatu dituzue, goazen banan-bana aztertzerara. Area 10eko (Joxe Arregi Plaza) etxebizitzaren proiektua eta martxan den Area 33 (Lizarain zerrategia), zein egoeratan daude?

JM.L.: Joxe Arregiren kasuan, dena nahiko lotuta dago, lanak hastea besterik ez da fal-

ta. Amenabar enpresak irabazi du lehiaketa publikoa eta bera izango da lanak egingo dituen. Hitzartutako epeen arabera, urte hasieran hasi behar dute. Guztira 42 etxebizitza izango dira, denak tasatuak. Eraikin berri hori egitearekin batera, Joxe Arregi Plaza ere berritu egingo da.

N.L.: Area 33ri dagokionez, etxebizitza eraikitzeke lanak amaitzean daudela esan genezake baina arazoak bestelakoak dira, hor egin behar den urbanizazio eta errotondari dagozkionak, eta ondorioz, etxeen erabilera baimenari lotutakoak. Erabilera baimen hori lortu arte ezin dira babes ofizialeko etxebizitzetako giltzak eman. (Bi proiektuen xehetasunak 8-9.orrietan)

Kirol ekipamenduen beharra ere aipatu da. Honen inguruan lanean ari al zarete?

JM.L.: Joxe Arregi plazaren atzean, Uliazpi egoitzaren parean aurrikusita dago gune bat kirol instalazioak egiteko. Orain, zer instalazio egin nahi diren herriak erabaki beharko du. Herritarrei galdetuko diegu zer nahi den. Udazketik aurrera herritarrek gai honetaz iritzia emateko modu zehatza izango dute.

N.L.: Hor Villabonak ere badu zer esana. Izan ere, aipatu behar da bere garaian Olaederra kiroldegia egiteko Zizurkilek dirua jarri zuela, eta orduan Villabonarekin adostu zen hurrengoan alderantziz izango zela, Villabonak jarriko zuela dirua Zizurkilen kirol azpiegitura bat egiteko. Agian, hau da momentua, ikusita Villabonak ere beharrak dituela.

Beste proiektuei begirajarrita, Elbarrenatik igarotzen den trafikoa arintzeko



ELKARRIZKETA


saihesbidearen proiektua zertan da?

JM.L.: Uztailean Aldundian izan ginen, eta proiektua onartuta dago. Jende aurrean jarri dute, eta azken alegazioak eta aldaketak erabaki ostean, prest egongo da. Guk esan genion beharrezko ikusten genuela herriarentzat eta lehenbait lehen egin behar zela. 2012a aipatu ziguten, ea horrela izaten den.

Elbarrenaz hitz egin dugu baina Zizurkil Goian ere beharrak handiak dira. Azkeneko etxebizitzak duela 20 eraiki ziren....

N.L.: Gai hori Udalak mahai gainean du. Plan orokorrean zonalde bat baino gehiago daude aurrikusita etxeak egiteko, eta aztertzen ari gara. Legealdi honetan gauzak aurreratzen hasi nahi dugu. Alegia, gaur egun ez dago ez



proiekturik eta ezta beste-lakorik ere, eta beraz, plan orokorretik abiatuta, ikusi beharko dugu zer egin daitekeen. Udalak argi ikusten du beharra dagoela, baina egun batetik bestera ezin-go da egin azken hamarkadetan egin ez dena. Eta gainera, gauzak planifikatuta egin nahi ditugu, eta ez eraiki eraikitzeagatik.

Azken urteetan sarri aipatu baina egin ez dena P.M Otaño plazaren peatonalizazioa da. Lan honetan has-tea aurreikusten duzue?

JM.L.: Hori ere egoera berean dago, gaur egun ez dago ezer eginda. Arazoa da, plaza peatonalizatzeko saihesbide bat eta aparkalekuak behar direla. Hasi gara aztertzen, eta etxebizitza-

ren gaiarekin batera garatu beharko dugu.

Zizurkili nabarmen eragin-go dion proiektu bat AHT-arena da. Udalak zer mezu eman nahi du?

JM.L.: Ordenantzak aldatzen ari gara, 1994tik igo gabe dauden tasak eta fiutzak gaurkotzeko. Hau da, gaur egun Zizurkilerako obretara datorren

kamioi batek ia ez du ezer ordaindu beharrik. Esaterako, orain arte kamioiek eta bestelako makinek bide bat erabiltzeagatik jartzen zen fiutzak ez zuen ematen gero bide hori konpontzeko adina. Hori aldatuko dugu, behintzat etor litezkeen albo kalte horiek konpontzeko.

N.L.: Benetako kaltea ordea, hor geratuko da. Zizurkil erabat itxuraldatuko duen proiektua da, gure nahiaren aurka. Guk ez dugu eskumenik, Jaurlearitzak du. Hori bai, gainean egongo gara, kalteak ahal den txikiak izateko.

Herritarren parte hartzeari dagokionez, batzordeak sortzeko deialdiak finkatu eta zabaldu dituzue. Nola animatuko zenituzkete herritarren parte hartu dezaten?

JM.L.: Orain arte ez dute aukera handirik izan eta beraz animatu egiten ditugu, parte hartzea hau baita, herriaren

gaineko erabakietan inplikatzeari, iritzia emanez eta bakoitzak ahal duenetik jarritz. Udalaren denona da, eta herria guztion artean eraiki behar dugu.

Amaitzeko, herritarrei emateko mezurik bai...

N.L.: Pazientzia pixka bat edukitzeko. Ilusioa eta gogoia badugula, ideia eta proiektu asko ere bai, baina herria ez dugu egun batetik bestera aldatuko. Positiboa dena da herrian gabiltzan bi pertsona gairela, herritarrekin kontaktua egunero dugula. Zizurkil bizi gara eta ondorioz, ederki nabaritzen dugu zer behar dauden. Hori aurreko legealditik hona aldaketa nabarmena da.

JM.L.: Ziur ez dugula dena ondo egingo, akatsak izango ditugu, eta ahal den neurrian barkatzeko esango nieke, lanerako eta herrian gauzak hobetzeko asmo hutsez ari garela.

**Joxe Mari Luengo:
Egoera ekonomiko erreala jakiteko auditoria bat egiten ari gara**

**Nerea Lizarraga:
Zer kirol azpiegitura nahi diren herritarrei galdetuko diegu, eta Villabonarekin adostuta egin nahi dugu**

“Las consecuencias del endeudamiento llegarán hasta las próximas legislaturas”

En el primer número de Plaza Berri nos hemos reunido con los máximos responsables municipales, Joxe Mari Luengo y Nerea Lizarraga. El nuevo alcalde y la teniente alcalde de Zizurkil nos han hablado de la situación del Ayuntamiento y de los proyectos que tienen sobre la mesa.

Los primeros meses de trabajo en el Ayuntamiento han sido costosos y confusos para Luengo y Lizarraga, ya que es un área que anteriormente no

conocían. Aun así, poco a poco han ido comprendiendo el funcionamiento y la situación de la institución, que en palabras de la teniente alcalde no es nada positiva: “El nivel de endeudamiento económico es extremadamente grave, y a esta situación no se le puede dar la vuelta en dos años. Es duro aceptarlo, pero las consecuencias del endeudamiento llegarán hasta las próximas legislaturas”. Las consecuencias son evidentes: “Tendremos

dificultades para hacer inversiones en el pueblo, pero no nos queda otra alternativa que trabajar para ello”, explica Lizarraga. Aunque ya tienen evidencias de la grave situación económica, el alcalde ha adelantado que están realizando una radiografía exacta de la realidad y poder tomar medidas adecuadas. Se prevé que para comienzos de noviembre tendrán los resultados del informe.

Retos importantes

A pesar de la situación, Zizurkil tiene grandes retos para el futuro. “Los y las jóvenes se marchan a otros pueblos por falta de viviendas e infraestructuras”. En cuanto a las viviendas, en breve comenzarán las obras de remodelación de Joxe Arregi (Area 10) y están concluyendo los de la Serrería Lizarain (Area 33)”. Más información en las páginas 8 y 9. Otro objetivo que tienen en mente es dotar a Zizurkil de

mejores infraestructuras: “Se prevé acondicionar una parcela detrás de la plaza Joxe Arregi para instalaciones deportivas. Ahora lo que hay que decidir es qué instalaciones necesita el pueblo. Va a ser una decisión que tomaremos los y las zizurkildarras, ya que tenemos intención de preguntar al pueblo”, comenta el alcalde. “Además, desde nuestro punto de vista Villabona también debería implicarse, porque en su momento Zizurkil hizo una inversión en el polideportivo Olaederra con la condición de que en un futuro se haría a la inversa”, añade Lizarraga.

Hablando de proyectos, no podíamos pasar sin preguntar sobre la variante que descongestionará el tráfico del centro del pueblo. El alcalde ha adelantado que el proyecto está en exposición pública y que, después de hacer todas las modificaciones correspondientes a las alegaciones que se presenten, estará listo para su ejecución. “Este proyecto nos corre prisa, porque lo vemos muy necesario. Esperamos que las obras empiecen el 2012”, aclara. Por otra parte, parece ser que los trabajos de construcción del TAV (Tren de Alta Velocidad) también lle-

garán a Zizurkil en esta legislatura. “Aunque no estemos de acuerdo con este macroproyecto, el Ayuntamiento no puede hacer nada al respecto. Lo único que hemos hecho es cambiar la ordenanza que regula las tasas y fianzas. De hecho, estas tasas no se habían actualizado desde 1994. Por lo tanto, cualquier camión o maquinaria que introduzcan en Zizurkil tenía que pagar unas tasas inferiores al gasto que suponía reparar los daños producidos por ello”, explica Luengo.

Luengo y Lizarraga han pedido paciencia y calma a los

vecinos y vecinas: “Tenemos ilusión y ganas de trabajar. También tenemos muchos proyectos e ideas, pero un pueblo no se puede cambiar de un día para otro”, comenta el alcalde. “Tanto Jose Mari como yo somos dos personas que vivimos en Zizurkil, que estamos en contacto con los y las zizurkildarras, y que somos los primeros interesados en avanzar como pueblo”, recuerda la teniente alcalde. “Esto es, precisamente, una de las diferencias esenciales que hay entre el actual equipo de gobierno y el anterior”.

ERREPORTAIA**Hirigintza**

Neguan hasiko dira AREA 10eko lanak

Horrenbeste urtez itxaroten egon ostean, urte hasieran hasiko dira Joxe Arregi Plaza eta bere ingurua eraldatuko duten lanak. Proiektuak bere baitan hartzen ditu 42 etxebizitza tasaturen eraikuntza, plazaren hiritartzea eta Teodosio eraikina botatzea.

Udalak deitutako esleipendunen leihaketa irabazita, Amenabar Eraikuntzak S.A. izango da proiektua gauzatu duena. Lanen zuzendaritza berriz Jaime Abalos arkitektoak eramango du. Izan ere, azken hau da, Udalaren enkarguz proiektua diseinatu zuena. Enpresa esleipendunak kontratua sinatu ondoren hilabeteko epea izango du obrak hasteko. Bide beretik, 22 hilabetetan bukatu behar dituzte lan guztiak.

42 etxebizitza tasatu

Egungo plazaren atzekaldean geratzen den zelaiaren eraikiko da 42 etxebizitza izango dituen eraikina. Bi ataritan banatuko dira. 42 etxebizitza horietatik 41 tasatuak dira eta bat librea, egungo Teodosio eraikineko jabeentzako. Azken hori 4 logelakoa izango da, 18 etxebizitza 3 logelakoak izango dira, 21 bi logelakoak eta azkeneko biak elbarrientzako egokituak (1 logela batekoa eta bestea bikoia). Etxebizitza bakoitzak bere trastelekua eta garajea izango ditu, eta sukaldea ere erabat ekipaturik

edukiko dute. Metro karratuen arabera, prezio zehatza aldatu egiten bada ere, 2 logelakoa bizitzek 168.000 € balio dute eta 3 logelakoek 199.000 € (bi kasuetan BEZa kontatu gabe). Garajeetarako sarrera geltokiko bidetik egingo da. Guztira 56 garaje egingo dira, 15 salmenta liberako izango direlarik.

Eraikinak 3 etxabe komertzial izango ditu. Horietako bat estanko berria egokitze izango da; bigarrena, 90 metro karratukoa, jubilatuen egoitza berria atontzeko; eta azkenik 647 metro karratuko lokala geratzen da enpresa esleipendunaren esku.

Plazaren hiritartzea

Teodosio eraikina botatzearekin ikusgarritasuna eta espazioa irabaziko du Joxe Arregi Plazak. Egun, plaza kalearen maila berean badago, hiritartze obra hauekin metro eta erdiko altuera irabaziko du hasieran, eta bi metro eta erdikoa bukaeran. Hau da, plazak punta batetik bestera metro bateko desnibela izango du. Malda hau ordea ez da ez ikusi eta ezta nabaritu ere. Guzti honek badu arrazoi bat: altuera irabaztean kultur etxera eta eraikiko den eraikinera joateko ez dela eskailera beharrik egongo, eta plazaren ezkerrean geratzen diren tabernekiko dagoen altuera ere murriztu egingo dela. Beraz, plazaren inguruko eraikinetako lotura hobetu egingo da.

Plazaren sarreran parke bat jarriko da, eta gainontzeko zatia zabalgunea izango da. Honekin batera, kale berri bat zabalduko da autoentzako. Etxebizitzaren atzekaldetik abiatu, kultur etxea inguratu eta plaza aurrera aterako da.

Este invierno comenzarán las obras del Area 10

Después de años de demora, las obras que transformarán la plaza Joxe Arregi y su entorno están a punto de comenzar. El proyecto engloba la construcción de 42 viviendas, la reurbanización de la plaza y la demolición del edificio Teodosio Enea. Las obras tiene como plazo de finalización 22 meses.

Viviendas tasadas

De las 42 viviendas, 41 serán tasadas y una, destinada a los

propietarios de la casa Teodosio Enea, libre.. Entre las tasadas, 18 viviendas constan de tres habitaciones, 21 de dos habitaciones, y las dos restantes se destinarán a personas discapacitadas. Cada vivienda, que se entregará con la cocina totalmente equipada, consta además de un garaje y un trastero. Los precios difieren según los metros cuadrados. Los pisos de dos habitaciones tendrán un precio de 168.000€ y las de 3 habitaciones 199.000€

(IVA no incluido). En cuanto a la remodelación de la plaza, se prevé que la demolición de Teodosio Enea contribuirá a una mejora de la visibilidad y el espacio. Además, a la entrada de la plaza se construirá un parque infantil. En cuanto al tráfico, el proyecto incluye la construcción de una nueva carretera que discurrirá por detrás de las viviendas, rodeará la Casa de Cultura y llegará hasta la parte delantera de la plaza.

Area 33ko hiritartze lanak amaitzean

Lizarain zerrategia zegoen gunean egiten ari diren etxebizitzek zeresana eman dute. 76 etxebizitza libre eta babes ofizialeko 33 bizitza egin dira. Etxebizitza horiek amaituta erabilera baimenik, hiritartze lana amaitzeko dagoelako. Joxe Mari Luengo alkateari galdetu diogu auziaz. "Hor arazoa da errotonda bat egin beharra dagoela hiritartze lanen barnean, eta errotonda hori egiteko Hirubide edo Azken Portu bezala ezagutzen den etxea bota egin behar dela. Eraikuntza enpresa eta etxe horretako partikularrak ez dira ordea, ados jartzen". Errotonda hori egin eta hiritartze lanak amaitu arte Eusko Jaurlaritzak ez du etxebizitzaren erabilera baimenik emango. Udal berria arazoaren jakitun izan zenean, esku hartzea

erabaki zuen. "Ikusirik gatazka ez atzera ez aurrera zegoela, Udalak erabaki bat hartu zuen: Presio neurri gisa, etxebizitza libreen obrak paralizatzea, eta bi aldeek adostasuna lor zezaten bitartekari lana egitea". Aldizkari honen amaieran akordioa lortzean dela azaldu digute Udaletik. "Ekimen pribatu bat denez, Udalaren eskumena araudia betetzen dela bermatzea mugatzen da, eta ahal duen neurrian hiritartze lan horiek bizkortze- ra, etxebizitza egokitu zaien herritarren mesedetan". Dena den, argitu behar da babes ofizialeko etxebizitzak entregatzeko epea ez dela amaitzen urte amaierara arte.

33 bizitza, 37 garaje eta 33 trasteleku

Babes ofizialeko 33 etxebizitza egin dira, eta horietatik soilik 3 dira hiru logelakoak, bat solairu bakoitzean. Gainontzekoek 2 logela izango dituzte. Etxabeei dagokienez, super merkatu kate batek hartuko duela zabaldu da, baina Udalera ez da inongo eskaririk iritsi.



ERREPORTAIA

Memoria historikoa

Ahantzuraren aurka, oroimena berreskuratuz

Azken urteotan lan eta lan dabil Zizurkilgo Hernandorena kultur taldea. Taldeko lau elkartu ditu Plazaberrik: Joxin Azkue, Eduardo Tormo, Pello Joxe Aranburu eta Julian Arrastoa.

Hileko bigarren eta laugarren asteazkenetan elkartzen dira Iriarte kultur etxean. "Jendea animatu nahi dugu taldera biltzera. Hainbat lan arlo ditugu, bakoitzaren interesen arabera. P.M Otañoena egin genuen, Elbarrenaren garapena aztertzen ari gara, memoria historikoa..." Euren ekimenetatik bati heldu nahi izan diogu, Zizurkilen gerra zibilak utzitako arrastoan sakontzeari.

Taldekideek honela azaltzen dute ekimenaren sorburua. "75 urte bete dira Frankoren altxamendutik eta Zizurkilen sartu zirenetik. Herrian izan zuen eragina ikertu nahian, Aranzadik harremanetan jarri ginen eta aldi berean, joan den gabonetan, udal artxibora joan eta garai hartako akta eta dokumentuak arakatzeko aritu ginen". Berehala

atera zuten lehen ondorioa: "Ohartu ginen hemen gerra kasik igaro egin zela. Hori bai, fusilatu batzuk izan zirela jakin genuen."

Fusilatu horien berri us-tekabeen jaso zuten. "Datu garrantzitsuena Teodoro Mujika herritarrek eman zizkigun paperen artean zegoen. 1978an, PNVk Zizurkilen fusilatuen alde egin zuen meza iragartzen zuen karte-la, hain zuzen. Bertan bost fusilatuen izenak aipatzen dira: Konstanzio Mendizabal, Juan Almortza, Gabino Barroso, Jose Kruz Zuriarrain eta Kruz Iribarren. Hori izan da gure abiapuntua". Hila-beteotan datuak baieztatu eta informazioa lortzen aritu dira. "Bost horiek frankistek fusilatuak izan zirela baieztatu dugu, baina horietako bat Villabonakoa ote zen argitu nahian ari gara". Hildako

zizurkildarren istorioa antzekoa da. "Gehienak gerra hasi eta berehala fusilatuak izan ziren. 36an lau. Etxera bila etorri eta eraman zituzten. Ez zituzten Zizurkilen fusilatu, batzuk badakigu non eta beste batzuren kasuan hori ere ez"

36ko abuztuaren

Fusilatuen historia oinarri hartuta, garai horretan herrian gertatua ikertzen ari da taldea. "1936ko abuztuaren Villabona aldera hurbilduak ziren frankistak edo orduan esaten zen bezala, naparrak. Bidea oztopatu nahian, abuztuaren 14 inguruan, errepublikaren alde zeudenek Villabona eta Zizurkil arteko Zubimusu zubia bota zuten". Ekintza horren zergaitia ika-

ra izan zen. "Zizurkilen ez zegoen errepublikaren alde bereziki antolatutako talde bat, Andoainen eta Tolosan esaterako, bai. Fabriketan zebilen jendea informatuago zegoen, baina Zizurkil gehiena, erabat nekazal girokoa izanik, ikaratuta baina antolatu gabe harrapatu zuen gerrak".

Zubimusuko zubia bota zuten, makinaria gabe, oinez sartu ziren soldaduak Zizurkilera. "Uste dugu, Adunako zubitik sartu zirela, abuztuaren 15, amabirjin egunaren bueltan. Erresistentziarik gabe hartu zuten herria". Zubimusun garraio argazki bat ere bada. 1938ko abuztuko argazkia da, lehertu eta ia bi urtera ateratakoa.

Memoria contra el olvido

Hernandorena Kultur Taldea lleva meses investigando la huella negra de la Guerra Civil en Zizurkil. En las pasadas Navidades, realizaron un exhaustivo trabajo en el archivo municipal. La conclusión fue clara: "Nos dimos cuenta de que la Guerra en Zizurkil simplemente pasó". Sin embargo, recabaron información sobre zizurkildarras fusilados. "En 1978, el PNV hizo una misa en memo-

ria de los fusilados de Zizurkil. En ella se mencionan cinco nombres: Konstanzio Mendizabal, Juan Almortza, Gabino Barroso, Jose Kruz Zuriarrain eta Kruz Iribarren. Este ha sido nuestro punto de partida".

Agosto del 36

Basándose en la historia de los fusilados, Hernandorena Kultur Taldea está reconstruyendo lo ocurrido en el

Familien mina

Proiektuaren barnean, fusilatuen senideekin harremanetan jarri da Hernandorena kultur taldea. "Hasi-eran harritu egiten dira, orain kontu horrekin etortzeak harritzen ditu. Baina

pixkanaka hizketan hasi eta gertatua gogoan duten familien kasuetan behintzat, azkenean barrua husten eta hunkituta amaitzen dute. Hamarkadetan isilean eman duten gaia izan da". Gizartean Frankoren tropek egin-



Zizurkilen hil zuten hernaniarra

Gerra garaian, Zizurkilen hil zuten Hernaniko gizon bat. "Lartin baserri atzeko kobazulo inguru horretan edo aurkitu zuten frankistek hernaniarra, norbaitek abisua eman zien han zela eta etorri eta tirokatu zuten. Non lurperatuta dagoen ere nahikoa argi dago eta Aranzadi jakinaren gainean da". Garai hartako

egoeraren larria argi erakusten du ondoren gertatu zenak ere. "Frankistek gizon bat hil zutela zabaldu orduko, Adunibar-ko ama alabak lasterka joan omen ziren herrira ea beren senidea zen ikustera". Zoritxarrez, euren senidea, Konstanzio Mendizabal zizurkildarra ere fusilatua izan zen.

dako sarraskiaz zabaldu den ahantzura familietara ere iritsi da, ordea. "Baten kasuan, orain bizirik dagoen familiak ez zekien bere senidea fusilatua izan zenik ere". Hiru familiarekin izan dute harremana orain arte, besteen kasuetan ikertzen ari dira, bereziki Aranzadik bidalitako informazioa oinarri hartuta.

Hernandorena kultur taldean argi dute eman beharreko mezua. "Ez zirela gaizkileak izan. Faxistek hil zituzten demokrazia eta errepublika defendatzeagatik. Momentu txar horretan leku horretan egokitu ziren zizurkildarrak izan ziren, eta oroi-rena eta errekonozimendua merezi dute. Eta euren bidez, baita gerra sufritu zuten herritar guztiek ere". Orain arte Zizurkilen egin den bakarra 78ko meza da, alderdi batek antolatuta. "Guk uste genuen bazela garaia herri bezala omenaldi bat egiteko, euren memoria aldarrikatzeko. Fusilatuak ardatz hartuta,



gerran gertatutakoa kontatuko dugu, sufritu zutenen berri eman".

Azaroan ekitaldiak

Azarorako ekitaldiak pres-tatzen ari dira. "Zerbait laburra argitaratuko dugu herritarren artean banatzeko. Gerra izan zenaren laburpen bat eta gero fusilatuen biografia txiki bat behintzat jasoko dugu." Argitalpenarekin batera, hitzaldi pare bat eta Udalarekin elkarlanean omenaldi xume bat ere egingo da hilerrian. Memoria historikoa oinarri delako etorkizuna eraikitzeko.

HERRITARREN TXOKOA

AINERE TOLOSA



B



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria
Herritarren Parte Hartzeko
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
SS-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandezena 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak, Aurrera Plaza 3,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.

“Taberna bat ireki beharko banu, Pakito izena jarriko nioke”

Zizurkilgo plazatik, pantaila handira

Zinema, telebista, antzerkia... orain 10 urte esan balizute hau guztia, sinestuko al zenuen?

Hemendik 10 urtera konturatuko naiz egiten ari naizen guztiaz. Egiten ditudan gauzak naturaltasun osoz hartzen ditut eta horren babilioz ondoren konturatzen naiz.

Azken lanetik hasita, egunotan Arriya filmean egin duzun lana dugu ikusgai. Zer moduzko esperientzia izan da?

Batez ere, eroso. Nire pertsonaia ez zen nagusia filmean eta alde horretatik arintasuna sentitu dut. Gainera, zuzendaria eta lan taldea oso gertu izan ditut.

Telebistan, Finlandia saioan ikusi zaitugu azken denboraldian. Erraza izan al da?

Ba egia esan bai. Wazemanken genuen lan-talde berdintsua izan da eta horri esker lan erdia egina nuen. Aitziber Garmendia eta biok elkarrekin lehen aldiz lan egin arren, oso gustura aritu naiz, eta hori sumatu da.

Zizurkilen eman zenituen aktore moduan lehenengo pausoak. Zer pisu dute hasierako urrats horiek?

Nire buruarekin konfiantza hartzen ikasi nuen eta batez ere, mundu horretan izugarri ondo pasatzen nuela sentitzen nuen. Nik ez nuen aktore izan nahi, nik ondo pasa nahi nuen... Agian, karaten hasi izan baintz eta bertan ere ondo pasa, karateka izan nahiko zukeen garai hartako Ainerrek, auskaloi!!!

Zein oroitzapen dituzu umetako Zizurkilez?

Garai politak bizi izan nituen. Auzoko guztiak ginen lagun eta kalera jeitsiz gero, beti topatzen zenuen norbait jolasteko. Plaza dut gogoan, ikurrin koloreez margoturiko barandekin.. zoragarria zen.

Esaiguzu...

Zizurkilgo txoko kuttun bat

Fraisorotik Anoetara bidetan dagoen zuhaitz bat. Gaztetxoak ginela koadrilatan bertara joaten ginen arratsaldeak pasatzera eta bertan egoten ginen kontu-kontari ilundu arte.

Herriko pertsonaia bat

Pakito. Zizurkilen bizi zenean, herri guztiarekin harremana zuen. Herriarena zen Pakito. Nik uste dut, kale bat merezi duela bere izenarekin. Taberna bat ireki

beharko banu “Pakito” jarriko nioke.

Zer botatzen duzu faltan Zizurkilen?

Joxe Arregi plazaren izena zeraman plaka.

Eta soberan?

Zizurkilek ez du modernitatekerik behar, bizi kalitatea baizik. Tabernak, pintxoak, txikiteoa, plaza eder bat, parkea eta gurasoak basoerdi bat eskuan dutela umeei begira plazan egotea... Garai bateko Zizurkil zena berreskuratu behar da. Zizurkilek ez du “A LA CARTA” ren beharrik. “SALDA BADAGO” baino ez.

Eskerrik asko Ainerere, Plazaberriaren galderei erantzuteagatik...

Muxu handi bat Zizurkil!!! AINERE TOLOSA, betiBu-landegi kalekoa.

